

PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2009.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Privatuko Erakunde Publikoaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2009ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu eta kontabilitate, langileria eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Osatek SA ere fiskalizatu du eta txostenean berariazko atal bat jaso da Gurutzetako Ospitalean 2006tik 2009ra bitarteko urteetan obra, ondasun eta zerbitzuen kontratazioan legea betetzeari buruzkoa.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du Osakidetzak eta Osatekek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, Osakidetzaren kasuan eta kontratazioaren atalari dagokionez, HKEEk adierazi du zenbait kasutan urratu egin dituela administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak, eta besteak beste, ez da egiaztatu prozedura negoziatua erabiltzea bideratzen duten suposamenduak daudela; esleipen irizpideak ez dira Pleguan edo iragarkian jaso, edota ez dira behar hainbat zehaztu edo oker haztatu dira; kontratuan aurreikusitako iraupenak legezko gehiengo muga gainditzen du; esleipendunak ez du zerga obligazioak bete dituela egiaztatu; kontratuen luzapenek legez edo pleguetan aurreikusitako gehiengo luzapen kopurua gainditu dute; ez da behin-betiko bermea eratu edo kontratua luzatutakoan kopurua ez da behar hainbatekoa izan; eta azkenik, publizitate eta lehia printzipioa urratu da, hainbat hornidura kontratu txiki modura izapidetzean. Ez-betetze guzti hauen espedienteen zenbakia eta kopurua txostenean jaso dago.

Langileriari dagokionez, HKEEk 2009an Erakunde Zentralaren zenbait izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarriren ordainketa azpimarratu du; horiek, ordea, ez zeuden aurreikusiak Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakian.

Osakidetza eta Osateken Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du bien gainean; salbuespen bakarra Osakidetzari dagokio, izan ere, ez baititu egoeraren balantzean erregistratu zenbait langileren erretiro osagarrien kontzeptuko obligazioak, ez 60 eta 64 urte bitartean erretiroa hartzen duten langileen borondatezko erretiroagatiko saria ere; horrek guztiak, aktuario azterketa baten arabera, 2009ko abenduaren 31n 180 milioi euroren zenbatekoa egin du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Azkenik, txostenak Gurutzetako Ospitaleak 2006tik 2009ra bitarteko ekitaldietan gauzatutako kontratazioari buruzko atal bat besarkatzen du eta bertan HKEEK 2006tik 2008ra bitartean egindako azterketa mugatuko txostenetatik eskuratutako ondorioak eta 2009ko fiskalizazioaren ondorio esanguratsuenak jasotzen ditu.